Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko uztailaren 8a, ostirala — 130 — Viernes, a 8 de julio de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZALDIBIAKO UDALA

*Iragarkia*

Zaldibiko Udalbatzarrak, 2022ko urtarrilaren 31n egindako osoko bilkuran, erabaki zuen haserako onespena ematea euskara ikasteko dirulaguntzen araudiari, jendeaurreko epea pasa onodoren erreklamaziorik ez bada ezartzen onespen hau behin betikoa izango dela esanez.

Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, onartutako testua argitaratzen da.

Erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarkia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita; egoki iritzitako beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

Aplikatzekoa den legeria: azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) 116. eta 117. artikuluetan; eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumena arautzen duena, 46. artikuluan xedatutakoa.

Zaldibia, 2022ko ekainaren 29a.—Alkatea. (4389)

ERANSKINA

*Euskara ikasteko dirulaguntzen araudia.*

*1. atala. Xedapen orokorrak.*

Araudi honek euskara ikasteko diru-laguntzak arautzen ditu.

*2. atala. Onuradun izateko baldintzak.*

a) Zaldibian erroldatuta izatea ikastaroak dirauen bitartean.

b) Hamasei urte (16 urte) beteak behar dira, gutxienez.

c) Zaldibiako Udalean zorrik ez izatea.

d) Ondoko ikastetxeren/kurtso batean matrikulatuta izatea:

— Zaldibian antolatzen diren kurtsoetan.

— Zaldibiako kurtsoetan ikasteko aukerarik ez balego, beste euskaltegi homologaturen batean.

— Barnetegi homologatu batean.

e) Diruz lagunduko diren ikastaro motak:

— Aurrez aurreko ikastaroak.

— Autoikaskuntza ikastaroak.

— Online ikastaroak.

f) Ikasturtea amaitzea.

g) Ikastaroan gutxienez % 85eko asistentzia izatea.

Hutsegitea justifikatutzat hartuko da honako kasu hauetan:

## AYUNTAMIENTO DE ZALDIBIA

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Zaldibia, en sesión celebrada el día 31 de enero de 2022, adoptó el acuerdo de aprobar inicialmente la normativa de subvenciones para el estudio del euskera, con el fin de que, transcurrido el plazo de información pública sin haberse formulado reclamación alguna, la presente aprobación sea definitiva.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley de Bases de Régimen Local, se publica el texto aprobado.

El acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde la publicación del anuncio, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que estime oportuno.

Legislación aplicable: lo dispuesto en los artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, y en el artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Zaldibia, a 29 de junio de 2022.—El alcalde. (4389)

ANEXO

*Normativa de subvenciones para el aprendizaje del euskera.*

*Sección 1.ª Disposiciones generales.*

El presente Reglamento regula las subvenciones para el aprendizaje del euskera.

*Sección 2.ª Requisitos para ser beneficiario.*

a) Estar empadronado en Zaldibia durante el curso.

b) Tener al menos dieciséis años (16 años) cumplidos.

c) No tener deudas en el Ayuntamiento de Zaldibia.

d) Estar matriculado en alguno de los siguientes centros/cursos:

— En los cursos que se organizan en Zaldibia.

— Si no se pudiera estudiar en los cursos de Zaldibia, en otro euskaltegi homologado.

— En un internado homologado.

e) Tipos de cursos a subvencionar:

— Cursos presenciales.

— Cursos de autoaprendizaje.

— Cursos online.

f) Finalización del curso escolar.

g) Tener una asistencia mínima del 85 % en el curso.

La falta se considerará justificada en los siguientes supuestos:

EK\CV GAO-I-2022-04389

— Gaixotasunak eragina bada: norberaren gaixotasuna, semealabena, gurasoena edota bikotekidearena (medikuaren agiria ekarri beharko da).

— Lanak eragina bada (lantokiko arduradunaren agiria ekarri beharko du ikasleak).

h) HABEren deialdian dirulaguntza eskatu izana (https://www.habe.euskadi.eus).

i) Gain-finantzaketa eragin dezakeen beste dirulaguntzarik jaso ez izana. Horretarako, eskatu diren eta onartu zaizkion dirulaguntzei buruzko zinpeko aitorpena.

j) Bestelako agiri argigarriak eskatu ahal izango zaizkio eskatzaileari.

Dirulaguntza jaso ahal izateko aurreko baldintza guztiak bete beharko dira.

*3. atala. Dirulaguntzen zenbatekoak.*

3.1. Zaldibian erroldatutakoak.

• Zaldibian udalak antolaturiko kurtsoak:

— A1, A2, B1, B2 mailak: matrikularen % 100eko dirulaguntza, 900 euroko gehieneko mugarekin.

— C1 maila: matrikularen % 100eko dirulaguntza, 500 euroko gehieneko mugarekin.

— C2 maila: matrikularen % 75eko dirulaguntza, 400 euroko gehieneko mugarekin.

Matrikula egin ahal izateko, Udalak zehaztutako fidantza ordaindu beharko dute euskara ikasleek. Ikastaroa bukatutakoan, ordaindutakoa osorik bueltatuko zaie % 85eko asistentzia izan eta dagokion agiria aurkezten dutenei.

% 85eko asistentzia bete ez dutenek edo ikasturtea amaitu ez dutenek fidantza berreskuratzeko aukera galtzeaz gain, galduko dute hurrengo ikasturterako dirulaguntza jasotzeko eskubidea eta matrikula osoa ordaindu beharko dute.

• Beste euskaltegi homologatu batean aurrez aurreko ikastaroak:

Eskaera urteari dagokion gutxieneko soldata x 1,5 baino errenta altuagoa duten langileak:

— A1, A2, B1, B2 mailak: matrikularen % 75eko dirulaguntza, 900 euroko gehieneko mugarekin.

— C1 maila: matrikularen % 75eko dirulaguntza, 500 euroko gehieneko mugarekin.

— C2 maila: matrikularen % 50eko dirulaguntza, 400 euroko gehieneko mugarekin.

Eskaera urteari dagokion gutxieneko soldata x 1,5 baino errenta baxuagoa duten langileak, langabetuak eta ikasleak:

— A1, A2, B1, B2 mailak: matrikularen % 100eko dirulaguntza, 900 euroko gehieneko mugarekin.

— C1 maila: matrikularen % 100eko dirulaguntza, 500 euroko gehieneko mugarekin.

— C2 maila: matrikularen % 75eko dirulaguntza, 400 euroko gehieneko mugarekin.

• Beste euskaltegi homologatu batean autoikaskuntza eta online ikastaroak:

Eskaera urteari dagokion gutxieneko soldata x 1,5 baino errenta altuagoa duten langileak, edozein hizkuntza mailatan: matrikularen % 50.

Eskaera urteari dagokion gutxieneko soldata x 1,5 baino errenta baxuagoa duten langileak, langabetuak eta ikasleak, edozein hizkuntza mailatan: matrikularen % 100.

— Enfermedad propia, de los hijos, de los padres o de la pareja, siempre que sea causada por enfermedad (se adjuntará certificado médico).

— En caso de que el trabajo afecte (el alumno deberá aportar el documento de responsable del centro de trabajo).

h) Haber solicitado subvención en la convocatoria de HABE (https://www.habe.euskadi.eus).

i) No haber recibido ninguna otra subvención que pueda dar lugar a sobrefinanciación. A estos efectos, declaración jurada de las subvenciones solicitadas y concedidas.

j) Se podrá requerir al solicitante otros documentos aclaratorios.

La concesión de la subvención estará condicionada al cumplimiento de todos los requisitos anteriores.

*Sección 3.ª Cuantías de las subvenciones.*

3.1. Empadronados en Zaldibia.

• Cursos organizados por el Ayuntamiento en Zaldibia:

— Niveles A1, A2, B1, B2: subvención del 100 % de la matrícula con un límite máximo de 900 euros.

— Nivel C1: subvención del 100 % de la matrícula con un límite máximo de 500 euros.

— Nivel C2: subvención del 75 % de la matrícula, con un límite máximo de 400 euros.

Para formalizar la matrícula, los alumnos de euskera deberán abonar la fianza que determine el Ayuntamiento. Una vez finalizado el curso, se devolverá la totalidad de lo abonado a quienes tengan una asistencia del 85 % y presenten el documento correspondiente.

Quienes no hayan completado la asistencia del 85 % o no hayan finalizado el curso escolar, además de perder la posibilidad de recuperar la fianza, perderán el derecho a la subvención para el curso siguiente y deberán abonar la matrícula completa.

• Cursos presenciales en otro euskaltegi homologado:

Trabajadores con una renta superior al salario mínimo del año de solicitud x 1,5:

— Niveles A1, A2, B1, B2: subvención del 75 % de la matrícula con un límite máximo de 900 euros.

— Nivel C1: subvención del 75 % de la matrícula, con un límite máximo de 500 euros.

— Nivel C2: subvención del 50 % de la matrícula, con un límite máximo de 400 euros.

Trabajadores, parados y estudiantes con una renta inferior al salario mínimo del año de solicitud x 1,5:

— Niveles A1, A2, B1, B2: subvención del 100 % de la matrícula con un límite máximo de 900 euros.

— Nivel C1: subvención del 100 % de la matrícula con un límite máximo de 500 euros.

— Nivel C2: subvención del 75 % de la matrícula, con un límite máximo de 400 euros.

• Autoaprendizaje y cursos online en otro euskaltegi homologado:

Trabajadores con rentas superiores al salario mínimo del año de solicitud x 1,5 en cualquiera de los niveles lingüísticos: 50 % de la matrícula.

Trabajadores, parados y estudiantes con una renta inferior a 1,5 x Salario mínimo correspondiente al año de solicitud, en cualquiera de los niveles lingüísticos: 100 % de la matrícula.

EK\CV GAO-I-2022-04389

— Barnetegia:

Eskaera urteari dagokion gutxieneko soldata x 1,5 baino errenta altuagoa duten langileak, edozein hizkuntza mailatan: matrikularen % 25.

Eskaera urteari dagokion gutxieneko soldata x 1,5 baino errenta baxuagoa duten langileak, langabetuak eta ikasleak, edozein hizkuntza mailatan: matrikularen % 80.

— Hizkuntza maila egiaztatzeko azterketen matrikulak eta ziurtagiriak ordaintzeko dirulaguntza eskatu ahalko dute Udal Gizarte Zerbitzuek baimendutakoek.

Ikasketak sortzen dituen bestelako gastuak –joan-etorriak, materiala, otorduak, egonaldiak eta abar– ez dira inolako kasuan kontuan hartuko.

Barnetegietan egindako ikastaroen dirulaguntzetarako gehieneko zenbatekoa zehaztuko du Udalak urteko aurrekontuetan.

b), c), d) e) eta f) baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiei dirulaguntza emateko nahikoa aurrekontu-krediturik ez badago, hainbanaketa bidez esleituko da dirulaguntza eskaera guztien artean, inongo lehentasun ordenarik gabe edo Udalak hala erabakiz gero kreditu aldaketa bidez osatu dezake falta den zenbatekoa.

HABEk, lehen eta bigarren mailak egiaztatzeko, ematen dituen dirulaguntzekin bateragarria izango da, baldin eta gainfinantzaketarik ez badago.

Urte bakoitzeko, gehienez 600 orduri dagokion dirulaguntza emango zaio ikasleari.

3.2. Zaldibian erroldatuta ez daudenak.

Zaldibian erroldatuta ez dauden pertsonek ez dute dirulaguntza jasotzeko eskubiderik izango. Halere, matrikulatu ahal izango dira Zaldibiako Udalak antolatzen duen kurtsoan, eta kostu prezio ofizialaren eta ordaintzeko eren arabera ordaindu beharko dute ikastaroa.

*4. atala. Eskaerak.*

4.1. Dokumentazioa.

a) Zaldibiako Udalak antolaturiko kurtsoetan parte hartu nahi dutenek Karreane kultur etxean eman beharko dute izena eta bertan aurkeztu beharko dute dokumentazioa.

b) Beste ikastetxeren batean ikasten dutenek dirulaguntza eskaera aurrez aurre egin ahalko dute (Karreane Kultur Etxean) ala internet bidez. Horretarako aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Eskaera matrikularekin batera egingo da.

a) Eskaera orria.

b) NAren fotokopia.

c) Matrikularen ordain-agiria.

d) Langileen kasuan errenta aitorpen datuak.

e) Langabetuen kasuan, langabezia-txartela.

f) Ikasleen kasuan, ikasle-txartela edo baliokidea.

Ikastaroaren amaieran:

g) Izandako asistentzia jasotzen duen agiria.

h) Langabetuen kasuan, langabezia-txartela.

i) Eskatu diren eta onartu zaizkion dirulaguntzei buruzko zinpeko aitorpena.

— Internado:

Trabajadores con rentas superiores al salario mínimo del año de solicitud x 1,5 en cualquiera de los niveles lingüísticos: 25 % de la matrícula.

Trabajadores, parados y estudiantes con una renta inferior a 1,5 x salario mínimo correspondiente al año de solicitud, en cualquiera de los niveles lingüísticos: 80 % de la matrícula.

— Las personas autorizadas por los Servicios Sociales Municipales podrán solicitar subvención para el pago de las matrículas y certificaciones de los exámenes de acreditación de nivel lingüístico.

Ningún otro gasto que genere el estudio –Desplazamientos, material, comidas, estancias, etc.– Será tenido en cuenta en ningún caso.

El Ayuntamiento fijará en sus presupuestos anuales la cuantía máxima para las subvenciones de los cursos realizados en internados.

En el supuesto de que no existieran créditos presupuestarios suficientes para la concesión de la subvención a todas las solicitudes que cumplan los requisitos b), c), d) e) y f), se procederá a la adjudicación de la subvención mediante prorrateo entre todas las solicitudes, sin prelación alguna, o si así lo decidiera el Ayuntamiento, mediante modificación de crédito.

Será compatible con las subvenciones concedidas por HABE para la acreditación de los niveles primero y segundo, siempre que no exista sobrefinanciación.

Por cada año se subvencionará al alumno con un máximo de 600 horas.

3.2. No empadronados en Zaldibia.

Las personas no empadronadas en Zaldibia no tendrán derecho a subvención. No obstante, podrán matricularse en el curso que organice el Ayuntamiento de Zaldibia y deberán abonar el curso en función del precio oficial de coste y de las formas de pago.

*Sección 4.ª Solicitudes.*

4.1. Documentación.

a) Quienes deseen participar en los cursos organizados por el Ayuntamiento de Zaldibia deberán inscribirse y presentar la documentación en la casa de cultura Karreane.

b) Quienes cursen estudios en otros centros podrán realizar la solicitud de subvención de forma presencial (en la Casa de Cultura Karreane) o a través de internet. Documentación a presentar al efecto:

La solicitud se realizará junto con la matrícula.

a) Impreso de solicitud.

b) Fotocopia del DNI.

c) Justificante de pago de matrícula.

d) En el caso de los trabajadores, datos de declaración de la renta.

e) En el caso de personas desempleadas, tarjeta de desempleo.

f) En el caso del alumnado, carné de estudiante o equivalente.

Al final del curso:

g) Documento en el que conste la asistencia prestada.

h) En el caso de personas desempleadas, tarjeta de desempleo.

i) Declaración jurada de las subvenciones solicitadas y concedidas.

EK\CV GAO-I-2022-04389

4.2. Epeak:

Dirulaguntza eskatzeko epea hamabost egunekoa izango da, matrikula epea ixten denetik kontatuta. Epe hori igarota ez da eskaerarik, ezta dokumenturik onartuko.

Ikastaroa amaitu eta 15 eguneko epean, ikastetxeko agiria aurkeztuko da. Hori egin ezean, dirulaguntza bertan behera utziko da.

*5. atala. Erabakiak hartzeko prozedura.*

5.1. Eskaera aurkeztuta, Euskara Zerbitzuko teknikariak txostena gehituko dio eta Kultura Batzordearen esku jarriko da.

5.2. Kultura Batzordeak eskaera aztertuta eta, hala badagokio, erabaki-proposamena igorriko dio Alkateari.

5.3. Alkateak, Kultura Batzordearen proposamena ikusita, dirulaguntzaren emakidari buruzko erabakia hartuko du.

5.4. Eskatzaileak Alkatearen erabakiaren kontra egoki iritzitako errekurtsoak aurkeztu ahal izango ditu legez erabakitako epe eta moduetan.

5.5. Dirulaguntza jasotzeko eskubidea, Alkateak ebatzi eta hurrengo egunetik aurrera izango da.

5.6. Eskatutako baldintzak beteko ez balira, edo behar bezala arrazoitutako beste edozein ziorengatik, Udalak dirulaguntzaren emakida deusezta dezake.

4.2. Plazos:

El plazo para solicitar la subvención será de quince días desde el cierre del plazo de matrícula. Transcurrido dicho plazo no se admitirán solicitudes ni documentos.

En el plazo de 15 días desde la finalización del curso se presentará el documento del centro. En caso contrario, se procederá a la anulación de la subvención.

*Sección 5.ª Procedimiento de toma de decisiones.*

5.1. Presentada la solicitud, el técnico del Servicio de Euskera adjuntará el informe que se pondrá a disposición de la Comisión de Cultura.

5.2. La Comisión de Cultura examinará la solicitud y elevará, en su caso, propuesta de resolución al Alcalde.

5.3. El Alcalde, a propuesta de la Comisión de Cultura, decidirá sobre la concesión de la subvención.

5.4. El solicitante podrá interponer contra la decisión del Alcalde los recursos que estime oportunos en los plazos y formas legalmente establecidos.

5.5. El derecho a la subvención será a partir del día siguiente al de la resolución del Alcalde.

5.6. En caso de incumplimiento de los requisitos exigidos, o por cualquier otra causa debidamente motivada, el Ayuntamiento podrá revocar la concesión de la subvención.

EK\CV GAO-I-2022-04389